

Aurreko Udaltzarrean, Ekainak 6, EHBildu, Baleike eta Irabazi udal taldeek LGTBI+ Pertsonen Egun Internazionalaren inguruko mozioa aurkeztu genuen, alde batetik egun honen garrantzia azpimarratu eta LGTBI+ kolektiboaren eskubide eta borroka aldarrikatzeko. Gure herrian ere borroka honek erronka ugari ditu, bai gizarte eta baita instituzio mailan. Eragile, elkarte eta norbanakoek arlo honetan egunero egiten duten lan baliotsu eta duinak udaleko politiketan izan behar dute islada eta zentzu horretan hainbat proposamen egin genituen mozioan: udalak adierazpen baten bitartez kolektiboak pairatzen duen bazterkeria salatu eta gaitzestea; ostadar bandera udaletxeko balkoira ateratzea Ekainak 28an; Arrasateko LGTBI+ kolektiboaren memoria historikoa berreskuratzea; gorroto delituen aurkako plan integrala eratzea edota aniztasun afektibo-sexual eta delitu gorrotoen aurkako formakuntza espezifikoa lantzea arlo publikoa errealitate hauetara egokitzeko.

Tamalez, gobernu taldea osatzen duten bi alderdiek mozioaren kontra bozkatu zuten, EAJ-k formak kritikatu eta PSOE-k ezer esan gabe. LGTBI+ kolektiboaren borroka eta eskubideak defendatu eta sakontzeko aurkeztu ziren proposamenak, ez ziren aurrera atera gobernuko bi alderdien erabakiaren ondorioz.

Baina ez gara ixilik egon behar. LGTBI+ kolektiboaren borroka bai gizarte eta baita instituzioetan eraikitzen jarraitu behar dugu, hipokresiaz mozorroturiko bazterkeria edozein esparruetan salatuz eta Ekainaren 28-an gure herrietako kaleak kolorez eta askatasun aldarrikapenez beteaz. Horregatik animatzen zaituztegu guztioi gaur Arrasaldeko 19.30-etan Bergarako manifestaldira joaten, denok elkartasunez bazterkeria ezabatu eta gizarte aske, anitz eta berdintsuago bat marraztu dezagun.

Arrasateko EHBildu, Baleike eta Irabazi Arrasate udal taldeak.